

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 5320

*EBAZPENA, 2024ko urriaren 11koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2024ko abuztuaren 13ko Ebazpena, 2030 Agenda Bonuen Programaren 2024rako dirulaguntzen deialdia ebazten duena.*

Otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuaren bidez, 2030 Agendaren arloko proiektuetarako dirulaguntzak erregulatu ziren, EAEko elkarten sareko erakundeek garatutako dibulgazio-, hezkuntza-, prestakuntza- edo partaidetza-ekintzak sustatzeko eta ugaritzeko laguntza gehigarri gisa, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak direla eta.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiaren 2024ko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez, 2024rako dirulaguntza horietarako deialdia egin zen irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan diruz lagundu daitekeen proiekturen bat garatzen badute, 23/2022 Dekretuaren 3. artikulua araber.

2024ko abuztuaren 13ko Ebazpenaren bidez, 2030 Agenda Bonuen Programako 2024rako dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Asociación Vasca de Mediación-Eusko Bitartekaritza Elkarteak aurkeztutako errekurtsoen aurrean, eta erakunde horrek jarritako aukerako berraztertze-errekurtsuak ebazten dituen Gizarte Trantsiziorako eta Agenda 2030erako idazkari nagusiaren 2024ko urriaren 8ko Ebazpenarekin bat etorriz, Balorazio Batzordeak berriz onartutako eskaerak ebaluatzen ditu, eta esleipen-proposamen berri bat aurkezten du, deialdi hau ebazten duen 2024ko abuztuaren 13ko Ebazpena aldatzea dakarrena.

Ondorioz, Balorazio Batzordeak egindako proposamen berria ikusita, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asociación Vasca de Mediación-Eusko Bitartekaritza Elkarteak 2024ko deialdian aurkeztutako eskabideak onartzea. 23/2022 Dekretuaren 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera baloratu ondoren, hiruk 50 puntu baino gehiago lortu zituzten, kreditu erabilgarria duen azken onuradunak lortutako puntuazio txikiena.

Bigarrena.– 2024ko abuztuaren 13ko Ebazpenaren I. eranskina (Erakunde esleipendunak) eta II. eranskina (Ukatutako eskabideak) aldatzea, era honetan:

I. eranskinean, proiektu esleipendun hauek gehitzen dira:

Zk.	Erakundea	Proiektua	Emandako dirulaguntza
005-1210403	Asociación Vasca de Mediación-Eusko Bitartekaritza Elkarteak	Igualdad de Género y empoderamiento Mujer	4.650,00
007-1210403	Asociación Vasca de Mediación-Eusko Bitartekaritza Elkarteak	Programa Mindfulness e Inteligencia Emocional	4.725,00
016-1210403	Asociación Vasca de Mediación-Eusko Bitartekaritza Elkarteak	Bienestar en el aula	4.350,00

II. eranskinean, eskabideak ukatzeko arrazoia aldatzen da:

Zk.	Erakundea	Proiektua	Ukatzeko arrazoia
006-1210403	Asociación Vasca de Mediacion-Eusko Bitartekaritza Elkartea	Programa de Prevención del acoso la violencia y otras formas de conflicto escolar (PAVyCE)	(1)
015-1210403	Asociación Vasca de Mediacion-Eusko Bitartekaritza Elkartea	Bienestar Familiar II	(1)

(1) Balorazio baremoa aplikatu ondoren, beste proiektu batzuek puntuazio handiagoa izan dute eta deialdi honetara bideratutako laguntza agortu dute

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion salan, 2 hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa erregulatzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 11.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusia,  
ION MUÑO A ERRASTI.